

etengabe

araba
euskaraz'25



ekainak 15 Olarizu



ikastolenelkartea

mondragon
Lingua

MLAKOOP

MUGARIK GABE,
EUSKARAZ
HEZI ETA HAZI



HUMANITY
AT WORK

MONDRAGON

etengabe

araba

euskaraz'25

Aurkibidea

Haurren agurra	4
Ikastolaren agurra	6
Araba Euskarazen mezua	7
Bastida Ikastolako Hezkuntz Proiektua	9
Bastida Ikastolako Hezkuntz Proiektua: HH eta LH	10
Etenik gabeko urtea	13
Arabako ikasleen III. topaketa	14
Araba Euskaraz 25 denda	16
Leloa eta logoa	17
Planoa eta egitaraua	18
Abestia	20
Mikel Urdangarin eta Kirmen Uriberen "trainerua"	22
Zergatik aukeratu ikastola?	26
Ikastolen aldeko Tanta	31
Gu, Bastida Ikastola	32
Etengabe formazioan	34
Ihes-gela	35



Nire Bastida Ikastola eta gure Araba Euskaraz

Nire ikastola oso berezia da, egunero gauza berriak ikasten ditudalako. Nik oraindik 11 urte ditut baina dirudienek ikastolak 45 urte bete ditu dagoeneko, garai hartan, dio amonak, Ikastola sortu zuten euskaraz hitz egiteko eta euskal kultura bizitzeko lekua nahi zutelako. Hasiera gogorak izan zirela eta udalak utzitako gela txiki batean egon zirela lehen haurrak.

Amak kontatu dit hasieran 10 edo 15 ikasle hasi zirela bakarrik, baina gaur egun, zorionez 130 ikasle gara, eta Ikastola gure bigarren etxea da. Eta, hemen, beti zerbait berezia gertatzen da! Ikasiz gozatu, ez dakizue zein ondo pasatzen dugun. Taldean proiektuak egiten ditugu, lagunekin, modu dibertigarrian. Gainera, musika, antzerki eta euskal dantza eta abestien tailerrek sortzaile izaten eta geure burua adierazten laguntzen digute. Hori guztia dela eta, ikastolara etortzea abentura zirraragarria eta berezia da egunero.

Araba Euskaraz, egun handia da guretzat. Aurtengoa seigarren edizioa izango dela dio irakasleak eta "Etengabe" leloa du. Olarizuko zelaietan ospatuko dugu, ekainaren 15ean. Beti bezala, abestu, dantzatu eta gure familia eta lagunekin egongo gara.

Eta, bidean, espazio-ontzi bat ikusten baduzue 2017ko logoa izan zela pentsa! Eta, mahats-mordo bat, 2008koa. Eta hostotxo txiki bat aurkitzen baduzue, 2004koa. Logotipo bakoitzak gure historia kontatu du, eta oso polita da horiek gogoratzea. Baina hau, hau gure Araba euskaraz izango da. Bizitza osoan gogoratuko duguna. Guraso eta irakasleek izan dituzte beste batzuk, baina hau, hau gurea izango da. "Etengabe" izenekoa, sekulakoa izango da, ziur gaude!

Aiton-amona, guraso, irakasle-ikasle, ikastolazale, euskaltzale. Zatoz gurekin bultzada bat ematera gure proiektuari. 45 urte eta gero, inoiz baino beharrezkoagoa da eta zure elkertasuna. Ekainaren 15ean hitzordua gurekin egun ederra pasatzeko: gure Araba Euskaraz.

Bastida ikastolako haurren izenean

CANTABRIA | ASTURIAS | CASTILLA Y LEÓN | PAIS VASCO



LOGÍSTICA



INDUSTRIAL Y METALÚRGICO



LIMPIEZA URBANA



ALIMENTACIÓN



INSTITUCIONES PÚBLICAS



SANITARIO Y RESIDENCIAL

Especialistas en todos los sectores y ambientes

AUTOMATIZACIÓN DE LA LIMPIEZA

Fregadoras, barredoras y aspiradores autónomos para la limpieza de pavimentos. Nueva tecnología que permite reducir consumos de agua y facilitar las tareas de limpieza.

¡ Solicita tu demo, sin compromiso !

interclym
maquinaria y útiles de limpieza



www.interclym.com | ic@interclym.com | 944 531 955

Lai
Alai

EXPERIENCE



ARMUR

COMERCIAL S.L.

EQUIPOS MULTIFUNCIONALES
Copy 7 Print / Scanner / Fax

c/ Telesforo Aranzadi 9 • 01009 VITORIA-GASTEIZ

Tfno: 945 200 603

administracion@armurcomercial.com

UR
ULTRAMARINOS
BELÉN

PLAZA DE LA PAZ 2
BASTIDA
628 07 09 91

Restaurante
Petralanda

Calle Varajuela, 4 - bajo • Labastida

Tfno: 945 331 111

asadorpetralanda@hotmail.com



THEN & NOW

MANUEL QUINTANO

LABASTIDA

PIONEROS ENTONCES. PIONEROS AHORA.

RIOJA ALAVESA



Zorionak eta urte askotarako, Bastida Ikastola

Berrogeita bost urte. Nork esango zukeen 1979an ezta? Euskararen Herriaren ertz honetan bizi ziren euskaltzaleak herri ameslari baten partaideak ziren gurean ere. Euskal Herriaren luze zabalean, gure haurren hezkuntza euskaraz izatearen balio estrategikoa erdigunean jarri zuten ameslariak. Baita Bastidan ere.



1979ko Bastidako haur haiek guztiak, erabat erdaldunak ziren. Bederatzi ume bastidar izan ziren hasieran. Gaur ehun eta hogeita hamar dira. Bastidarrak eta inguruko herrietakoak, bai Euskal Herrikoak, bai eta Euskal Herritik kanpokoak ere. Mugako ikastola izanik, mugaren beste aldean bizi diren euskal familiei ere haien haurren hezkuntza euskaraz eta gure bihotzeko herriari begira egiteko aukera eman izan diegu eta ematen jarraitzen dugu. Mugetako berezitasunak dira, baina askotan ahaztuak.

Berrogeita bosgarren ikasturtea da aurtengoa. Oi ama! Jada, garai hartako haur askok, seme-alabak izan dituzte. Horietako batzuk, euskaldun zaharrak. Bai, noski! Euskaldun zahar bastidarrak ditugu egungo gazte batzuk. Haien gurasoek eta ibilbide pertsonalak, euskaratik eta euskaraz bizitzera bultzatu dituzten Bastidarren seme-alabak. Lan etengabearen fruitua. Hasiera-hasiera hartan Ikastola sortu zuten familia eta urte hauetan guztietan, Ikastola izan diren norbanako guztien arteko elkarlan eta konpromisoaren fruitua. Bastidan dugun euskararen erabileraren datuak oso txikiak baitira oraindik orain. Hemen lanean gabiltzanok ondo dakigu zein lurzoru zailak diren gurea bezalakoak. Hizkuntza gutxitua deitzen duten hori, zein hazi delikatua den. Etengabe zaindu beharrekoa.

Horregatik, Bastida Ikastola, Ikastolen Elkartearen baitan, 45 urte hauetan, etenik gabe jardun izan da gure eskualdeko haurrengan hizkuntza eta lurraldearekiko lotura estutzen eta mundua ikusteko betaurreko propioak eskaintzen. Herrigintzaren tradizioetik sortutako Ikastolen proiektuak ezberdin egiten baikaitu. Ez inor baino gehiago eta ez gutxiago ere, ezberdin. Herritarren autoeraketatik sortua, legeek banatuta daukaten euskararen herria da gure etxea eta zazpi lurraldeetako haurrei proiektu batua ontzen ari gara etengabe. Euskal Herriaren forma hartzen duen egitasmoa, hain zuzen. Ikastolok hortxe dugu ezberdintasuna, Euskal Herritik euskal herritarrentzako material, pedagogia eta curriculum berritzaileak amestu eta garatzen ari diren proiektua dugula.

Hari hori sendoa izan dadin, gainera, datorren Ekainaren 15ean denok nahi zaituztegu Olarizuko zelaietan. Opari handia izango da guretzat Gasteizko Olarizuko belardietan urte hauetako guztietako bidelagunekin berriz ere topo egitea, baita bizitzan lehenengoz batuko diren familia eta norbanako horiei guztiei ongi etorria ematea ere. Gurea ikastola txikia da eta zuen laguntza, dena delakoa, asko eskertuko dugu.

Etorkizunean ere, Ikastola beharko du Bastidako herriak. Gu lanerako gaude, baina babesa eta laguntza ere behar beharrezkoak izango ditugu, beraz, zure aletxo jarri nahi baduzue gonbitea luzatuta geratzen da. Apuntatu zuen agendetan.

Araba Euskarazen mezua

Ikastolakide agurgarria,

Gerturatzen ari zaigu Araba Euskaraz eguna. Ekainaren 15ean berriro elkartuko gara milaka ikastolazale eta euskaltzale Olarizun, Gasteizen, Arabako ikastolen jai handia ospatzera. Eta milaka horien artean zeu, zeure familia eta lagunak ere nahi zaituztegu. Horixe da, hain zuzen ere, gutun honen xedea, Araba Euskaraz gurekin ospatzera gonbidatu nahi zaitugu lerro hauen bitartez.

Lanean ari gara Arabako ikastolen jaia prestatzeko. Auzolanean ari gara, Arabako zortzi ikastolak elkarrekin, duela lau urte abiatutako ereduari jarraiki. Aurtengo ekitaldian Bastida ikastola lagunduko dugu guztion lanarekin. Urte osoan aritu gara Arabar Errioxako ikastola honen hezkuntza proiektua bultzatzen, eta hura finantzatzeko dirua lortu nahi dugu jaiarekin. Baina Araba Euskaraz ez da soilik ikastola baten finantzazioa lortzeko helburuarekin egiten. Aitzitik, ikastola mugimenduaren indar erakustaldia ere bada, gure komunitatea sendotzen laguntzen duen egun bat ere bada, gure hezkuntza eredu aldarrikatzeko eguna. Euskarari eta euskal kulturari plaza eta bozgorailu handiak ere eskaintzen dizkiegu Araba Euskarazen bitartez, euskaraz bizi nahi duten herriaren eta herritarren bilgune handi bat da.

Egunari begira jarriak gara dagoeneko, eta aurreko urteotan bezala, bereziki haurrei eta familiei bideratutako jai eguna ari gara prestatzen. Halere, adin guztietarako askotariko kultur ekimenak eskainiko ditugu ekainaren 15eko Araba Euskaraz egunean. Jai parte-hartzailea izatea nahi dugu, eta euskararen erabilpena bultzatuko duena. Jai parte-hartzailea bai. Horretarako ditugu besteak beste, gazte eta gaztetxoentzako Erronka, txikientzako Haurren Basoa eta Argitxoren txokoa, eta adin guztientzako Dantza Plazan. Musika, dantza eta antzerkia ere ez dira falta izango, eta nahi beste jateko eta edateko ere prestatuko dugu.



Beharbada, urte osoan zehar Araba Euskarazek antolatu dituen ekitaldietan parte hartu duzu, edota ekainaren 15eko jaiaren antolaketan auzolanean ari zara dagoeneko. Hala bada, mila esker mila! Akaso, egunean bertan lanean arituko zara, horrelako jai batek eskatzen duen boluntario multzo handiaren parte izango zara. Hala bada, eskerrik asko, aldeztu aurretik. Auzolanerako aukerarik ez, baina eguna familiarekin Olarizun igarotzera etorriko zaren horietako bat izango zara, apika; besoak zabal zabalik hartuko zaitugu! Agian, oraindik ez duzu erabaki Araba Euskaraz jaira etorriko zaren; zatoz, ez zaizu damutuko!

Araba Euskaraz Kultur Elkartearen izenean, jai hau aurrera ateratzen ari den lan talde handi eta zabalaren izenean, Arabako ikastolen izenean, mila esker.

Adeitasunez,

Unai Mendizabal

Arabako Ikastolen lehendakaria

Loramendi



AK aurrenak



Bastida Ikastolaren Hezkuntza Proiektua

Badira curriculumek jaso arren ikaskuntza prozesuan zeharkako bultzada behar dituzten arloak. Irakaskuntza eta bizitzako arlo guztiak ikutzen dituztenak eta lanketa berezia eskatzen dutenak, hain zuzen ere. Proiektu hauekin, Bastida Ikastolako komunitatean arlo horietan eragiteko lan sistematikoa eta koordinatua egiten dugu gure haurrek eta kide guztiek horien garrantziaz jabetu eta konpromisoak har ditzaten.

HIZKUNTZA-PROIEKTUA

Hizpro programa ikastolan lantzen diren hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntzari eta erabilerari dagozkien alderdi guztiak bildu eta haien trataerari koherentzia emango dion egitasmoa da. Euskararen ardaztutako hezkuntza eleanitza bilatzen du. Urtean zehar hainbat ekimen burutzen ditu eta horien bitartez gela barruko eremuan, gelaz kanpoko eremuan eta eremu instituzional eta familietan eragiteko asmoa du.

INGURUMENA

Eskola Agenda 2030 programak ingurumen iraunkorrako baten alde lan egitea du xede. Horretarako, eskola komunitate osoaren partaidetza bultzatzen da eta, bereziki, ikasleena. Proiektu honetan udalaren lankidetzarekin dihardugu 2015-16 ikasturtetik. Ikasleek eta irakasleek osatzen duten "patrulla berdea" lan hauek koordinatzen ditu: eguneroko birziklapena, Txoko Berdea hornitzea eta urteroko kanpaina.

Jasangarritasunaren kultura hezkuntza-komunitateetan integratzea, bereziki ikasleengan; arazo ekologiko eta sozialen konponbideetan esku-hartzeko beharrezkoak diren konpetentziak eta konpromisoak garatzea, tokian eta maila globalean, eta ekintza eraldatzaileak egitea, banakakoak zein kolektiboak, ikastetxean eta udalerrian, orain eta etorkizunean.

HEZKIDETZA

Hezkidetza programaren helburua gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzea da. 2015-16 ikasturtean proiektu honetan sartu ginen eta lan etengabea egin dugu orduz gero. Hezkidetza plana eta Berdintasun planetan oinarrituta eskola komunitatean eragiteko dinamika txertatu ditugu.

IKT

Ikastolak behar dituen hardware, software, profesionalen prestakuntza eta dinamizazioa antolatzen ditu IKT planak, bai hezkuntza prozesuan eta bai eskolaren kudeaketan, modu koherente eta aipatzen. Gainera, informazioa bilatu, prozesatu eta komunikatzeko konpetentziak bermatuz ezagutza sortzeko gai diren ikasleak hezi behar ditugu. Horretarako, ikastolen pedagogia-curriculum proiektuekin bat datozen IKT baliabideak erabiliz, metodologia berritzaileak eta kolaborazio proiektuak bultzatzen ditugu.

ESKOLA-JAZARPENA

Kiva ikerketan oinarritutako programa da, Finlandiako Turkuko Unibertsitateak sortu eta garatua. Helburua da eskola-jazarpena prebenitu eta amaitzea, ikasleak babesteko eta giro positiboagoa sortzeko. 2017-2018 ikasturtean gure ikastolan ezarri genuen. Elkarrekin, jazarpena identifikatu eta gelditu dezakegu, ingurune hobea sortuz!

Haur Hezkuntza

Haur Hezkuntzako etapak berebiziko garrantzia du ikasleen garapen-prozesuan, eta lehen urte horietan bizitako esperientziak erabakigarriak izango dira haien etorkizunerako. Abiapuntua haurrak ikastolara pozik joatea eta ikasten gozatzea da. Haurra irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren erdigune neuralgikoan kokatzen dugu. Autonomia pertsonala, sozializazio-prozesua, hizkuntzaren garapena, eremu kognitiboak eta emozionalak eta psikomotrizitatea dira aitortutako hezkuntza-proiektu honetan lantzen diren eremu nagusiak.

Haurra hezkuntza-ibilbidean laguntzea da irakaslearen jardueraren oinarria, bere buruarengan eta haren inguruan konfiantza izan dezan, gaitasunak ahalik eta hobeki garatzeko eta zoriontsua izateko.

Ekintzetan oinarritutako ikaskuntza da, haurrak berezkoa duen jakin-min eta aktibotasunean oinarrituta. Horretarako, haurrak oinarritzko konpetentzien garapenak eskatzen dituzten ikaskuntza anitzak eskuratzen joango dira.

Premisa horietatik abiatuta, duela urte batzuk hezkuntza-etapa hau eraldatzeko asmo handiko prozesu batean murgildu zen Bastida Ikastola, hIZAN proiektua ezarriz.

hIZAN proiektua euskarazko murgiltze-ereduaren eremu bat da, "haurraren ikaskuntzen zati handi baterako ezinbesteko tresna". Haurra ulertzeko modua proiektu honen oinarrian dago eta hiru printzipio metodologiko argi ditu: adingabearen izatea errespetatzea garapen integralean; eskola-umearen segurtasun emozionala eta fisikoa bermatzea aurrerapen handienak gertatzen diren garaian; eta adingabearen garapen naturalerako gaitasunean konfiantza izatea, irakasleak, ikasteko prozesuaren bideratzaile gisa ulertuta.

Hori guztia aurrera eramatea ez da erraza, baina errazagoa bai, noski, esku hartzen duten irakasleak benetan bokaziozkoak izanik, ikastolan urteetako eskarmentua, transmisioa zein elkarlana izanik eta, nola, ez, ETENGABEko formakuntzan murgilduta daudenean.



Lehen Hezkuntza

Etengabeko aldakuntzan gaude LHko etapan, baina baita ikastola osoan ere.

Hasiera hartan, material desberdinekin hasi ginen baina gero Ikastolen Elkarteko materiala erabiltzera pasatu ginen. HHn Urtxintxa materialarekin batera LHn Txanela proiektuarekin hasi ginen. Horixe izan zen emandako lehen aldaketa garrantzitsua. Ondoren, Txanela oso proiektu arrakastatsua izan zen bere garaian, ez soilik ikastoletan baizik eta hainbat eskoletan ere. Ondorioz, urte askotan errotu egin zen Bastida Ikastolan.



Baina urteen poderioz aldaketa baten beharra iritsi zen, garai berrietara egokitzeko. Aldaketa hori ere Ikastolen Elkarteko proiektuen eskutik etorri zen. Ikastolen Elkartea beti aitzindari. Modu horretan, DBHko etapatik hasita, EKI proiektua ezartzen hasi ginen, 6.mailan hasi, 5.maila hartu eta 4.mailara iritsi arte. Horrekin batera, digitalizazioa iritsi zen, izan ere, LH5 eta LH6ko ikasleek EKIk material digitala erabiltzen dute gaur egun.

Hezkuntza etengabe ari gara eraldatzen, bai ikastolen elkartean, bai gure ikastolan ere. Hurrengo urratsa, beraz, LHko etaparen gainerakoa berritzea izan zen, oraingo honetan lehen mailatik hasita hirugarrenera iritsi arte, KIMU proiektuarekin.



Hori gutxi ez eta matematikan arloan hobetu nahian, Innovamat proiektuan abiatu gara aurten, HHn eta LHko 1, 2 eta 3.mailatan. Metodologia horrekin, matematiken izaera manipulatibotik hasi nahi dugu, gaitasun abstraktura iritsi arte, ikasten duten algoritmo eta prozedura bakoitzaren logika guztia ulertu eta barneratzeko helburuarekin.

Ingelesari ere garrantzi handia ematen diogu eta Hocus and Lotus, Buddy eta Story Projects materiala lantzearekin batera, ingeleseko eskolaz kanpoko saioak ere eskaintzen ditugu.

Horrekin batera, egungo gizarteak eskatzen dituen beharretara egokitzeko, programazioa eta robotika ere lantzen ditugu Bastida ikastolan. 4.mailan True-true robotekin hasiko gara, eta duela zazpi urte 5.mailan Scratch egiten dugu eta 6.mailan Mibot robotak erabiltzen ditugu.

Ikastolen Elkartearen altzoan egoteak, gaur egun dauden baliabide pedagogiko moderno eta egokituenak erabiltzeko aukera ematen digu Bastida Ikastolan. Euskara ardatz duen mundu txiki honetan, muga guztiak gainditzeko prest.

KAFE BOLA LEKV

Especialidad en Pintxos - Bokatas

© 945 33 13 53 - Labastida



Ikasi, sotu eta distiratzeko behar duzun guztia
Caype-Folder Taldean aurkituko duzu

Eskola, sormen eta bulego materiala prezio hoberenean.
Libretak, estutxeak, motxilak, agendak, errotuladoreak, artea...
eta askoz gehiago!

Todo lo que necesitas para aprender, crear y brillar
Lo encuentras en Caype Grupo Folder

Materiales escolares, creativos y de oficina al mejor precio.
Libretas, estuches, mochilas, agendas, rotuladores, arte... ¡y mucho más!

Harrobi Kalea, 31, 01013 | Posta Kalea, 37, 01004 Vitoria-Gasteiz, Araba

www.caype.com

CARNICERÍA  H^{NOS.} FUENTE

c/ Mayor, 6

01330 LABASTIDA (Alava)

Telf. 945 33 11 34



Labastida

Cuna del Vino Moderno

Ayuntamiento
de Labastida



Bastidako
Udala

 **BERMATEK**
Proyectos Industriales

aLai

asador

diputación 9 LABASTIDA I ÁLAVA 945 331 359



RAÚL BARRIO

TALLER DE HERRERÍA CREATIVA

Etenik gabeko urtea

Araba Euskaraz eguna ekainaren 15ean ospatuko dugun arren, urtean zehar hainbat ekimenen bitartez jaialdia Arabako bazter guztietara eraman dugu. Nola ez, ahalko bagenu, baita unibertso osora ere.



Urriaren 10ean prentsaurrekoan, gure asmoen berri eman ondoren, Araba Euskaraz aurkezpen jaiarekin hasi ginen, Urriaren 18an Bastidan. Gure herri txikian kanpaikada jo eta, Dj Kaktus-ek girotuta, egun zoragarria izan genuen, gainera, 2025eko Araba Euskarazeko lehenengo arropak ere aurkeztu genituen bertan, txokolate beroarekin udazkeneko freskuraz goxatuz.

Musika eta dantza ezinbesteko dira Euskal Herriko jaietan eta Araba Euskaraz egunaren aurreko hilabeteetan ere ederki astindu ditugu gure eztarri eta aldakak. Batetik, Gazte Talent lehiaketan, esate baterako, musika talde eta bakarlari gazteek haien lanak ezagutzera eman zituzten eta bestetik, Golazenen emanaldian ehunka gazte bildu genituen atzo eta gaurko kanten bertsio dantzagarrien artean.

Neguko hotzetan, Arabako Euskal Pilota Elkartearekin elkarlanean berotu genituen eskuak. Bastidako haur eta gaztetxoek gure kirolaren modalitate ezberdinak probatu eta erreminta zein material ugariren berri jaso zuten. Euskal Pilota Topaketa honek zaletasuna utzi du eta gure jolasorduetan pilota soinua etengabea da.

Martxoan Araba Euskaraz Jai Alai Master Series edizio berria izan genuen. Urtetik urtera, indartuz doan ekimena, bai puntalarien mailagatik eta bai ikusle kopuruagatik ere. Batek jakin, agian, hemendik gutxira, Bastidako Topaketetako haurren bat ikusi ahalko dugu bertan, txuriz jantzita.

Martxoan ere, urteko momentu garrantzitsuenetako batera iritsi ginen. Izan ere, denbora luzean irrikaz beterik izan gintuen Araba Euskarazeko abestiaren aurkezpena izan genuen. Mikel Urdangarinek (musika) Kirmen Uribek (hitzak) eta Jon Santamariak (bideo-klipa) prentsaurrekoan zabaldu zuten opari-kutxa zoragarria, lehenbizi, prentsaurrekoan eta iluntzean, Mikelen kontzertuan, zuzenean.

Apirila ekintzaz beteriko hilabetea izan zen. Alde batetik, Non eta Mugan ekimenari esker, Euskal Herriko mugetan gauden ikastoletako 14 eta 16 urte bitarteko gazteek elkar ezagutzea, bakoitzaren euskalkiarekin aberastea eta herrien arteko trukea sustatzea nahi izan genuen. Eta bestetik, Argantzun, Amurrio eta Bastidan bertan, Arabako ikastolazale eta mendizaleak elkartu ginen Etengabe martxan.

Azkenik, artikulu hau idazten ari garen unean, Etengabe jaialdiaren prestaketa lanetan gabiltza buru-belarri. Araba Euskaraz Olarizun eta gainontzeko Arabako ikastolekin elkarlanean izateak abantaila handiak ditu gure komunitate txikiarentzat, izan ere, ez da ahuntzaren gauerdiko eztula horrelako jaia antolatzea. Baina horrek badu bere kalte-ordaina. Alegia, jaia Bastidan bertan ez ospatzeak, zuok guztiok gure herritxoa hobeto ezagutzeko aitzakia bila jarri gaitu. Hori dela eta, Etengabe jaian, dantzaldia, trikipotea, tailerrak, herri bazkaria, magia ikuskizuna eta kontzertua prestatu ditugu. Goza itzazue eta goza ezazue Bastidaz.



Arabako Ikastoletako ikasleen III. Topaketa

Orain dela bi urte jarri zen martxan Arabako zortzi ikastolen arteko ikasleen topaketa. Pasa den urtean Oiongo San Bizente Ikastolak izan zuen antolaketa honen ardura nagusia eta orain dela bi urte Amurrioko Lautada Ikastolak. Aurtengoan berriz, Bastida Ikastolak hartu zuen lekukoa eta apirilaren 10ean ospatu zen. EKI metodologiaren barruan planteatzen zen topaketa zoragarri hau.



"IKUSTEKO BEHATU; BEHATZEKO SENTITU"
izena duen unitatearen bitartez, gure ikasleek, ikastola desberdinetako herriak ezagutzea da helburuetako bat. Bestea noski, elkar ezagutza eta giro euskaldun batean gozatzea.

Horretarako, gure ikastolako 5. mailako ikasleek, Bastida ezagutzeko gida turistiko bat prestatu zuten. Bastidako txoko batzuk erakutsi zizkiguten gure gidariek: Toloño, San Gines, Kristoren eliza, Larrazuriako arkua, Motako lagarra, udaletxea, Bastidako harresia, Salazar Quitano jauregia, Toloño arkua, Bastidako murala...

Eguna bikain hasi genuen. Bastidako pistetan bildu ginen ia 270 ikasle inguru. Bertan hamaiketakoa hartu genuen eta talde desberdinetan antolatu ostean, Bastida ezagutzeko bideari hasiera eman genion. Horretarako pisten jolasa egin genuen. Zortzi taldetan banaturik, ikastola desberdinetako ikasleek osatuta, elkar ezagutzen hasi ziren, txoko desberdinak deskubritzen eta informazioa jasotzen.

Jolasa bukatutakoan, Kristoren ermitan elkartu ginen eta Matxinbrao bidetik San Gines parkera abiatu ginen bidetik dauden eskulturez gozatuz. Elkarrekin jolastu eta bazkaldu eta gero, ikastolara bueltatu ginen. Bukatzeko, ikastolako jolas-lekuan, gure 5. mailako ikasleek sortu eta gainontzekoek zoragarri ikasi zuten 'Bastida herria' kantatuz eta dantzatuz agurtu genuen elkar.

Ezin ukatu, egun ahaztezina pasa genuela. Zorionak Bastida Ikastolako 5. mailako ikasleei (baita, asko lagundu ziguten DBH2. mailako ikasle guztiei ere) egindako lanagatik, eta bestetik, gure herria ezagutzeko asmoz, Bastidara hurbildu zineten ikasle zein irakasle guztioi mila esker.

Datorren urtera arte.

» Babestu **BERRIA**

Hezkuntza euskaldunak hedabide euskaldunak behar ditu.

Euskarazko egunkari nazionala da BERRIA. Nazioa du ardatz, eta euskaraz kontatzen du mundua egunero.

Baina, aurrerantzean ere euskal kazetaritza independente eta kalitatezkoa egiteko, ezinbestekoa zaigu zure babes ekonomikoa.

Egin ezazu ekarpena!

etengabe
arabaeuskaraz'25

Urteko ekarpena

100€

(0,27 euro eguneari)

Gazteen* ekarpena

30€

(*) 30 urtetik beherakoak

Ekarpen berezia

120€

aukeratu zenbatetako
(urtean 120 € edo gehiago)



**Hizkuntza ulertuz,
euskara ikasi.**

etengabe

arabaeuskaraz'25



Las Eras kalea, 14
Lapuebla de Labarka (Araba)
T. 945 607 192
www.panaderiafuertes.es

Eskolak! Ikastolak! Erakundeak! Zuen haurrentzako eta helduentzako ekintzak gurekin!

Udalekuak
Tailerrak
Tailerrak +55
Jolas txokoak
Herriko Jaiak
Zaintza
Eskolaz kanpoko ekintzak...

622450706
Esti
Hazten eta Jolasten



Online denda!



🌈 Araba Euskarazeko **arropa bila zabil**tza?

Ekainaren 15ean Olarizura hurbildu eta zure gustuko kamisetak, txanoak eta gehiago erosi ahal izango dituzu! 🗨️👕
Eta nahiago baduzu... **online eskatu** eta etxean jasoko duzu zuzenean!



Leloa

Etengabe, ikastola: 45 urte badira ikastola ireki genuela, eta ordutik etengabe ari gara Bastidari kalitatezko hezkuntza eskaintzen, euskarari eta euskal kulturari ardaztuta. Gurasoen kooperatibari antolatuta, bokazioak, inplikazioak eta pasioak mugiarazten gaitu.

Etengabe, hezkuntza eta pedagogia: Ikastola ereduari oinarrituta, pedagogia aurrerakoiak baliatuz, ikasleak erdigunean jarrita hezten ditugu, haiek baitira gure egitekoaren ardatz, gure iparra.

Etengabe, hezkuntza eta kultura: Ikastola ereduaren zutabe nagusiak izaki, euskararen eta euskal kulturaren transmisioa eta biziberritzea ditugu helburu, eta, ezagutzaz gain, erabilera, sormena eta gozamena bilatzen ditugu.

Etengabe, berrikuntza eta eraldaketa: Ikerkuntzan, garapenean eta berrikuntzan oinarritutako eraldaketa ari gara eragiten hezkuntzan. Hezkuntza ari gara eraldatzen, gizartea eraldatu nahi dugulako. Horretarako, irakasle eta profesional talde konprometitu eta sendo bat daukagu.

Etengabe, eragiten: Herrian txertaturik, herrian eragiten. Bastidari zabal zabalik gaude. Hartu-eman etengabean, herritarrekin lankidetzan, hezkuntzan, euskarari eta euskal kulturari eragiten dihardugu etengabe. Eskualdeko beste ikastolekin harreman estuan, Arabar Errioxa guztian eragitea dugu helburu.



Logotipoa

Etengabe lelotik abiatu gara bi zatitan osatutako logotipo bat sortzeko. Goiko aldeak leloaren esanahia irudikatzen du, tipografiari informalarekin sortua, trazuen jarraitasuna erabiliz, esaldiaren esanahia irudikatzen duen gezi batekin lagunduta. Aldiz, izenaren alde instituzionala (Araba Euskaraz 25), tipografiari sendoago eta serioago batekin sortu da, tipografiaren bertsio ezberdinekin jolastuz, egonkortasuna eta modernotasuna ematen duelarik.

Koloreetarako, Bastida herritik eratorritako gama kromatikoa bat aukeratu da, alde batetik, etxean, teilatuen eta harresien okre, marroi eta laranja koloreak erabiliz, eta bestetik, mahastietako eta mahatsondoetako more, fukusia eta arrosa koloreak. Kolore hauek bata bestearekin konposatuz diseinu erakargarria lortzen dugu.

Iruditegi grafiko moduan, geziak, norabide lerroak eta triangeluak erabili ditugu; leloa indartzen dute eta proposamen grafikoari dinamismoa ematen diote.

etengabe
araba
euskaraz'25

etengabe araba euskaraz'25

Hasierako ekitaldia
10:00 Auditorio begetalean

Araba euskaraz artisau azoka
Egun osoan zehar sarrera nagusia

Arabako Herriarteko
txapelketaren Euskal
Pilotako finalak
10:30 Adurtzako pilotalekuan

Kalejirak
10:45 Armentia Ikastolako Trikitilariak
11:00 Arai Erraldoien Konpartsa
12:00 Ondarroako Kresala Musika Banda



ERRONKA

11:00-14:00

LH
Mendia gunean

DBH
Gune guztietan

1. lautada gunea

11:00 **BERTXILIKAREKIN BERTSOTAN!**
Bertxilika Bertso Eskola
12:00 **HERRI KIROLAK**
Vital Fundazioaren eskutik
12:30 **ETENGABE TXOUA!**
Arabako Ikastoletako Ikasleak
14:00 **GORA MUSIKA!**
15:30 **ARABA EUSKARAZ DANTZA PLAZAN**
17:00 **GOIAZEN** Karaokea

Tailerrak eta jolasak:

11:00-14:00 **BERRIAREN TXOKOA**
Asier Kidam-en gertuko magia
11:00-16:00 **ARGITXOREN TXOKOA**
Argitxorekin jolasean

Egun osoan zehar:

EROSKI ELIKADURA TAILERRA,
MAKUSI GUNEA eta **IHOBE KLIMA AZOKA**



araba álava
foru aldundia diputación foral

MAKUSI

EROSKI
zurekin

berria



**HERRI
URRATS**
elgarrekin

MAIATZAK 11
SENPERE



Bilaldira
**magaletik herriare
euskera erdire**
Galdakao 2025

MAIATZAK 25
GALDAKAO



salto-saltoka
KILOMETROAK 2025 ELGOIBAR

URRIAK 5
ELGOIBAR



oinez
buruz, bihotzez, einez
ATARRABIA 2025

URRIAK 19
ATARRABIA

ERAKUNDEAK

araba álava
foru aldundia diputación foral



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

BABESLEAK

Vital **deitb** **euskaltel**
FUNDACIÓN - FUNDATZIOA

EROSKI
zurekin

Inzar
LIGATZA 1994-1995

LAGUNTZAILEAK



KOMUNIKABIDEAK



→ Abestia

"Arbasoen su txikia" euskara bizirik mantendu dutenen omenezko oda da, historiaren gorabeherak gorabehera. Poemak erresistentzia, galera, itxaropena eta hizkuntzaren transmisioaren garrantzia azpimarratzen ditu, "su txikia" metaforaren bidez. Kirmen Uribe eta Mikel Urdangarin euskal kulturaren ikono dira eta haien elkarlanak poemari indar handiagoa ematen dio.



Hitzak: Kirmen Uribe

Musika eta ahotsa: Mikel Urdangarin

Sintea, pianoa, testura elektronikoak: Koldo Uriarte

Baxua: Jon Cañaveras

Bateria: Ander Urtado de Saratxo

Gitarra elektrikoa: Rafa Rueda

Ahots gonbidatuak: Iñigo Etxezarreta (ETS), Iñaki Ortiz de Villalva (Betagarri eta Modus Operandi), Jon Basaguren (Izaki Gardenak eta Pasadena), Libe Garcia de Cortazar (Libe, Izaki Gardenak, Pasadena), Iratxe Aguilera (Kai Nakai) eta Adriana Fernandez.

Grabaketa estudioa: Ura estudioa

Soinu Teknikaria: Koldo Uriarte

Bideoklipa: Jon Santamaria

ARBASOEN SU TXIKIA

Pentsa, erromatarrek
Irulegiko herrixka hura
nola desegin zuten,
esklabo hartuz, etxeak errez.

Baina gutariko batek
euskaraz egiten
jarraitu zuen.
Arbasoen su txikia
eskutik eskura, igarotzen.

Pentsa, Lazarragaren poema eder
desagertuez, hainbat mendez.
Pentsa, Landucci haren hiztegirako
sei mila berbez.

Baina gutariko batek
euskaraz egiten
jarraitu zuen.
Aurrekoen su txikia
eskutik eskura igarotzen.


Gerran fusilatu zuten Lauaxeta
Santa Isabelen.
Gure hizkuntza ezin zen
inon hitz egin, galarazi zen.

Baina gutariko batek
euskaraz egiten
jarraitu zuen.
Arbasoen su txikia
eskutik eskura igarotzen.

Ikastolak sortu ziren,
Araba euskaraz iratzarri zen.
Euskararen su txikiak
milaka ta milaka bihotz ditu berotzen,
etenik gabe.



BIDEOKLIPA



Kirmen Uribe eta Mikel Urdangarinen abestia da 2025eko Araba Euskarazena, baina Mikel berak bideo-dei bitartez egindako elkarrizketan esan zigun bezala, traineru bat dago kantu honen atzean. Musikari asko biltzeko aitzakia izan da eta emaitza bikaina ondu digute.

Hitzek dioten bezala, kantu hau ere eskutik eskura ibili da, New Yorketik Gasteizera, joan etorrian. Kirmenek kontatu zigun nola ez den izan "lehen aukera egin eta listo". "Lanketa handia dago. Azkenean Mikelek pasatako musika bati jarri nion letra, gaia berarekin partekatu eta gero".

"Eta hitzak ere doinuari egokitzen ibili ginen, berbak aldatuz. Kantak transmisioari ematen dio garrantzia, erabileragatik dagoela bizirik euskara esaten dugu. Eta beste alde batetik azpimarratu nahi izan dugu Araba beti izan dela euskaldun, eta hor datoz Landucci, Lazarraga eta Lauaxetaren aipamenak. Garai zailei egiten zaie erreferentzia baina esaten da baita ere euskarak iraun duela norbaitek eutsi diolako kateari, anonimoa den norbaitek, jende xeheak."

Etengabe da aurtengo Araba Euskarazena leloa. Badakizue, gure eskualdean Bastida Ikastolak hezkuntza eredu komunitario eta euskaldunaren alde eginiko lan etengabeari omen egiteko. Baina Mikel eta Kirmenek mezua are gehiago zabaltzen lagundu digute. Etengabe eginiko lana bai, baina gainera, etenik gabeko bidea ere izan dela bistaraziz. 45 urte hauetan egindako etenik gabeko bide horri esker, euskararen su txikiak gure bihotzak berotzen ditu gaur egun eta abesti honekin, Arabako Errioxako euskalzaleen determinazioa ospatzen dugu, hizkuntzaren iraunkortasuna bermatuz.

Azkenik, Jon Santamariak eman zion irudia proiektu honi guztiari. Ikastolako haurrak eta herrikideak abentura polit honetan murgildu gintuen, horrekin, bideoklipa ikusten duzuen guztiok ere esperientzia eta bizipen berriak bizitzera gonbidatuz.

Eskerrik asko guztioi.

Traineru bat

Mikel Urdangarin eta Kirmen Uribe dira 2025eko Araba Euskararen abestiaren egileak. Pertsonak, artistak, kantua, ... hobeto ezagutzeko otsailaren 25ean Bastida Ikastolako 5 eta 6. mailako ikasleek egindako bideo-deiaren transkripzioa da hau. Elkarriketa polita eskaini ziguten eta zuekin partekatu nahi izan dugu, goza ezazue.



Kirmen, New Yorken eta Mikel, Gasteizen bizi zarete. Noiz, nola eta zergatik elkartu zarete Araba euskarazeko abestia egiteko?

KU_Idea Ketxuren aldetik sortu zen eta guk segituan esan genion baietz. Lehenbizi Mikelek musika eta ondoren nik letra egin genuen, ze alderantziz egiten ahalegindu ginen baina ez zitzaigun ateratzen (barre). Askotan egin dugu horrela baina azken honetan Mikelek proposatu zuen musika eder bat, zoragarria, eta nik haren gainean idatzi nuen letra.

MU_Kirmenek eta biok bizitzan askotan egin dugu hori ezta? Bi era horietan konposatu izan dugu eta polita da. Nik askotan bakarrik egiten ditut biak eta lan hau konpartitzen duzunean gauza berezia da eta Kirmenekin are bereziago.

Nola egiten da abesti bat? Mikel zuk musika eta Kirmen, zuk hitzak, bakoitzak aparte? Ala elkarri laguntzen diozue?

MU_Guk badaramatzagu kantu batzuk elkarrekin. Esango nuke Kirmenen aldetik beti izan dela oso malgua eta beti utzi dit letretan aldaketak egiten, behar izan denen. Gure pentsamenduak eta proposamenak konpartitzen ditugu eta, esango nuke, Kirmen oso esku zabala dela moldatzen uzteko.

KU_Kanta bat idaztea joan etorriko bidaia bat da. Musikan ondo sartu behar da eta horretarako batzuetan, hitzak aldatu behar dira edo tokiz aldatu. Prozesu hori oso polita izaten da. Oinarri batetik abiatu eta bion artean moldatzen dugu dena, azken puntura arte, detaile guztiak zainduz.

Zuetaz gain, norbaitek gehiagok parte hartu du abestia osatzen? eta ze erritmo eta doinu dauka abestiak? Nolakoa da? Kontatu dezakezue?

MU_Kantuaren egitura pianoarekin sortu eta gero Kirmeni bidali nion. Baina gero produktorearen lana ere badago, Koldo Uriarte, arabarra, nirekin taldean pianoa jotzen duen laguna eta gainera, produktore lanak egiten dituen. Eta gero beste gonbidatu batzuk ditugu, ahots eta musikariak. Oraindik, izenik ezin dizuegu eman elkarriketa honetan, aurrerago. Beraz, traineru bat dago guzti honen atzetik.

"Euskararen su txikia" da izenburua. Eskutik eskura doan su txikia. Nola sortu zen ideia hori eta zer kontatu nahi diguzue hitz horiekin?

KU_Badago kezka bat euskaldunon artean eta da euskara jakin bai baina ez dugula erabiltzen eta kezka horri helduta egin dugu kanta. Kantan esaten dena da euskara oso hizkuntza zaharra dela eta gainera, egoera zailak bizi izan dituela. Baina, indartsua ere izan dela euskara. Garrantzia eman nahi izan diogu euskaraz hitz egiteari, zeren eta hitz egiten bada jarraituko du bizirik euskarak, bestela ez. Ez bada erabiltzen hil egiten da hizkuntza bat. Horregatik su txikiaren irudia, belaunaldiz belaunaldi pasa den altxor txiki hori da euskara, erabili delako bizirik dagoena.

MU_Letra oso polita eta ezohikoa da. Mezu oso potentea da transmisioari begira. Oso garrantzitsua da gogoratzea euskara milaka eta milaka urtetan zehar bizirik egotea miraritik gertu dagoela eta gu mirari horren parte garela. Egia da batzuetan oso nekeza dela, kostatzen delako euskaraz bizitzea egunero baina ahalegin horrek badu bere saria: mirari baten parte garela. Saiatu beharko genuke mirari hori egonkortzen eta ez hain mirari bihurtzen.

Arritxu, Xabi, Markel eta Richar bideoklipeko aktore izan ziren. Gustatu zaizue?

MU_Bai orain dela gutxi ikusi dut. Gaur, batzarrez batzar nabil eta halako batean ikusi dut zirriborroa. Ikusi ditut protagonistak eta, egia esan, aktore lan bikaina haiena. Zorionak!

KU_Bada ni desiatzen ikusteko.

Euskaraz idatzi eta abesten duzue. New Yorken ere hitz egiten da euskaraz ala?

KU_Bai jakina, gu etxean euskaraz bizi gara. Gaur egun errazagoa da euskararen munduan jarraitzea interneti esker. Nik beti esaten dut ez naizela Euskal Herritik atera. Hor nago, euskaraz idazten jarraitzen dut, barruan nago. Gainera, uste dut, hemen egonda ere, euskal kultura zabaltzen eta territorio berriak irabazten laguntzen dudala.

Noiz erabaki zenuten musikari eta idazle izan nahi zenutela? Zer da zailagoa?

KU_Biak. (Barre)

MU_Nik orain dela 27 urte erabaki nuen irakaskuntza utzi eta musikaz profesionalki bizitzeko saiatzea. Nahiz eta irakasle lana atsegin izan gehiago maite nuen kantuak egitea. Nire bizitzako erabaki garrantzitsuena izan da, bizitza aldatu zidan eta zoriontsu bizi izan naiz. Ez da erraza izan eta egunero berriro behar da ametsa baina, badira urte batzuk jada ametsa egi bihurtzen.



KU_Nik institutu garaian erabaki nuen idazle izan nahi nuela. Pentsa, zuek baino pixka bat beranduago, ez asko. Zientzietatik letretara pasa nintzen eta irakasle bat etorri zitzaidan "zorotuta zaude" esanez eta "ez duzu etorkizunik edukiko idazle bezala" (barre). Nik ez nion kasurik egin eta Euskal Filologia egin nuen Gasteizen. Han elkartu nintzen Mikelekin eta gogoan dut gau batean Bodegoi tabernan esan niola: "Mikel ni idazle profesionala izango naiz". Eta berak erantzun: "Beno, ondo. Eta dirurik ez baduzu, nik utziko dizut". (Biak barrez).

Zuek biak bizkaitarrak zarete, baina Gasteiz eta Arabarekin aspalditik duzue erlazioa, ezta? eta Araba Euskarazekin?

MU_Biak bizkaitarrak gara baina Gasteizen ezagutu genuen elkar. Gasteiz egon ez balitz ez ginen ezagutuko edo ez genuke edukiko gaur egun dugun harremana. Hor ezagutu genuen jende bat eta gasteiztarrak egin ginen. Niretzat Gasteiz toki afektibo bat da, nahiz eta bertan bizi naizen, nire harremana hiriarekin ez da fisikoa, nire lagunak-eta dauden tokia da. Fisikoki badira beste toki batzuk garrantzitsuak niretzat eta batzuk ez daude euskal herrian ere, begira Kirmen non bizi den. Eta Araba Euskarazekin egonda nago noski. Bitan jotzen, uste dut Lapueblan bietan. Eta festaz gozatzen ere sarri.

KUPSA
c o a t i n g s
DESDE - SINCE **1.969**





KU_Niretzat gasteiz da pertsona eta idazle egin nintzen tokia. Ondarroarekin badut lotura afektiboa baina Gasteizen egin nintzen ni neu. Oso libre sentitu nintzen tokia izan da. Garai hartan mugimendu handia zegoen, euskara ere hazten ari zen. Orain ikusi da nola hazi den eta gizartearen arlo guztietan nola sartu den. Hazkunde hori guk ikustea oso polita izan da. Mugimendu sozialetan, gaztetxean, intsumisioan, ... egon ginen eta horrek pertsona moduan egiten zaitu. Eta Araba Euskaraz betidanik. Nik Ondarroako Zubi Zahar ikastolan ikasi nuen. Hezkuntza polit bat eman ziguten eta euskararenganako maitasuna ere han hartu nuen eta ia urtero joan izan naiz AEra. Eta orain oso pozik kanta egitearren.



Martxoaren 28an aurkeztuko duzue Araba euskarazeko abestia Gasteizen. Hor entzungo da lehenengo aldiz zuek sortu duzuen. Urduri jartzen zarete guk azalpenak egiten ditugunean bezala?

MU_Jendaurrean hitz egiten duzunean agian urduri ez baina erne-edo jartzen zara, zuek orain bezala. Urduri egotea ez da atsegina eta hori domestikatzen asmatzen duzu. Orain ez naiz jartzen urduri, kontzertuetan ere ez.

Egun horretan emozioz beteta egongo gara eta kontzerturako gogoz. Gainera Kirmenekin konektatuko gara eta zerbait berezia egingo dugu.

KU_Bai, bai, ni ere desiatzen.

Bastida Ikastolara etorriko zarete egunen batean, guri bisita egin eta abestia gurekin abestera?

KU_Ni gustura joango nintzateke, asko maite dut Euskal Herriaren alde hori. Horko paisaia, jendea, ... oso majoak zarete, benetan. Euskararen alde sortu duzuen giro hori oso polita da. Oso adibide polita da zuena, ez delako erraza. Zuen gurasoek, ikastolek egiten duzuen benetan eskertzen dizuegu. Eta bai, nahi duzuenean joango gara kantatu eta ardo pixka bat edatera.

MU_(Barre) Beraz, badakizue zer egin behar duzun: ardoa lortu eta jatekoa eta... (barre).

Eskerrik asko bikote elkarrizketa hau egiteko emandako erraztasun guztiengatik eta gure ikastolaren aldeko Araba Auskaraz abesti eder hau sortzeagatik. Betirako gordeko dugu gure bihotzetan.

Bideo-deia osorik ikusi nahi baduzue QR kode hau irakurri:



Udan ere euskaraz eroso

Veranea en euskera
cómodamente

aek
euskara praktikoa

familia barnetegiak

Euskara ikasteko
Seme-alabekin euskaraz aritzeko

Informazio gehiago



ADUNA

udabarnetegiak@aek.eus


Zergatik Ikastola?



Eduardo Manzanos

Ya conocíamos el centro y el que nos garantizaran una línea de enseñanza de calidad en Euskara, desde Infantil hasta Bachillerato más el inglés, ya que el castellano ya estaba garantizado por la zona donde vivimos. Ello nos animó a elegir Bastida Ikastola.

Ikastetxea ezagutzen genuen eta kalitatezko irakaskuntza bermatuko ziguna euskaraz, Haur Hezkuntzatik Batxilergora, gehi ingelesa, gaztelania jada bermatuta baitzegoen bizi garen zonan. Horrek Bastida Ikastola aukeratzera bultzatu gintuen.



Rafael Pesos Gil

Momentu horretan Bastidan zegoen Euskara egoera oso larria zen. Eskolan A eredu eskaintzen zen eta guk gure seme-alabentzat B eredu nahi genuen Euskara ikasteko.



Begotxu García Eriondo

Un grupo de padres decidimos que había que fundar una Ikastola para que pudieran estudiar en euskera y lo conseguimos!!

Guraso talde batek erabaki genuen Ikastola bat sortu behar zela euskaraz ikasi ahal izateko, eta lortu genuen!!



Boucha Nguadi

امل، الوتس الكي اديتس اب انرتخا دقل
انلافطانالو، انيف ققت نم هل محت
مئلعت لصفأ يلعل نولصحي س.

Bastida Ikastola aukeratu dugu, ematen digun konfiantzagatik, eta gure seme-alabek hezkuntza onena izango dutelako.



Lidia Muñoz eta Sergio Liébana

Llegamos desde Andalucía y supimos que el mejor regalo para nuestra hija era crecer con el euskera, haciendo suyo el idioma y la tierra que ahora llamamos hogar. Elegimos una ikastola porque queríamos que lo aprendiera de forma plena y natural, en un entorno cercano y familiar, donde el euskera estuviera vivo dentro y fuera del aula.

Andaluziatik iritsi ginen eta jakin genuen gure alabarentzat oparirik onena euskararekin haztea zela, orain etxea deitzen diogun hizkuntza eta lurra bere eginez. Ikastola bat aukeratu genuen, modu naturalean eta bete-betean ikas zezan nahi genuelako, ingurune hurbil eta familiarrean, euskara ikasgela barruan eta kanpoan bizirik egon zedin.



Natalia Ramos

Ikastola aukeratu nuen nire semeek euskara eta Euskal Herriko kultura zertan den ikas zezaten, eta horrela beraiek nik izan ez nuen aukera bat izateko.



Rosa María Labarga

La principal razón por la que matriculé a mi hija en Bastida Ikastola fue nuestra vinculación con nuestras raíces vascas y el deseo de que recibiera una educación en euskera. Además, el trato cercano que recibimos nos hizo sentir como en casa, lo que reforzó nuestra decisión.

Así mismo, consideramos que era una gran oportunidad para que nuestra hija, a pesar de vivir en La Rioja, no perdiera la conexión con nuestra cultura. En nuestra generación, no tuvimos la posibilidad de aprender euskera, ya que, aunque somos de Bilbao, en aquel entonces no se impartía. Por ello, valoramos especialmente que nuestra hija pudiera crecer en un entorno que fomenta y preserve nuestra lengua y tradiciones.

Alaba Bastida Ikastolan matrikulatzeko arrazoi nagusia gure euskal sustraiekin dugun lotura eta euskarazko hezkuntza jasotzeko nahia izan ziren. Gainera, jaso genuen tratua hurbilak etxean bezala sentiarazi gintuen, eta horrek gure erabakia indartu zuen.

Era berean, gure alabak, Errioxan bizi arren, gure kulturarekiko lotura ez galtzeko aukera paregabea zela uste dugu. Gure belaunaldian ez genuen euskara ikasteko aukerarik izan, Bilbokoak izan arren, garai hartan ez baitzen ematen. Horregatik, bereziki baloratzen dugu gure alaba gure hizkuntza eta tradizioak sustatu eta zainduko dituen ingurune batean haztea.



Raluca Loachim eta Mihai Furtuna

Pana in 2018 când am venit sa locuim în Labastida, fiul meu Radu care avea 8 ani atunci invata în scoala publica din Elciego iar nivelul de euskera era mai slab, asa ca atunci când am decis sa ne mutam in Labastida am investigat la ce scoala ar trebui sa își continue studiile, iar din sfaturile pe care le-am primit de la profesorii din Elciego, am decis ca studiile sa fie continuate la Ikastola.

la Ikastola metoda de predare esta unica, tot ce se studiază este în euskera, indiferent de materie, ceea ce e un beneficiu pentru a invata o limba straina. Rezultatele academice ale fiului meu au inceput sa fie mult mai bune datorita resurselor si programelor educative mai avansate iar copii lucreaza mult in grup. Profesorii sunt atenti la fiecare elev in parte indiferent de etnie sau nationalitate, instalațiile sunt mai moderne, la sala de mese se ofera atentie deosebita celor mici de 2 si 3 ani sunde au propriul monitor.

Fiica mea are 3 ani este la Ikastola din Labastida de cand avea 1 an si 9 luni si sunt foarte multumita de cum a evoluat pana acum. Stie de la Ikastola deja 2 limbi straine, euskera si engleza aparte de romana si spaniola, evolutia ei de la sala de mese este foarte buna multumita lui Goretti, iar bucuria cu care merge la scoala nu are cuvinte de descriere si asta datorita celor 2 profesori care de ocupa de grupele de 2 si 3 ani, Gontzal si Gurutze.

Adevarul este ca nu puteam sa aleg o scoala mai buna pentru cei 2 copii ai mei.

2018an, Bastidan bizitzera etorri ginenean, nire semeak 8 urte zituen eta Eltziegoko Ikastetxe Publikoan ikasten zuen. Euskara maila hobetu nahi genuen eta hango irakasleen aholkuen arabera, onena Bastida Ikastola zen.

Ikastolan guztia euskaraz da, eta hori abantaila bat da hizkuntza berri bat ikasteko. Nire semearen emaitza akademikoak askoz hobeak izaten hasi dira hezkuntza-baliabide eta -programa aurreratuagoei esker, eta hurrek taldean lan asko egin behar izaten dute. Irakasleak askoz ere arretatsuagoak dira ikasle bakoitzarentzat, etnia edo nazionalitatea kontuan hartu gabe; instalazioak modernoak dira, eta jantokian arreta berezia eskaintzen zaie 2 eta 3 urteko haur txikiei, monitore propioa baitute.

Nire alabak 3 urte ditu eta Bastida Ikastolan dago urte 1 eta 9 hilabete zituenetik, eta oso pozik nago orain arte izan duen bilakaerarekin. Bi hizkuntza dakizki eskolatik: euskara eta ingelesa, errumaniera eta gazteleraz gain. Jantokian izan duen bilakaera ere oso ona izan da eta da Gorettiri esker, eta ikastetxera joaterakoan duen alaitasuna ezin da hitzez deskribatu, eta hori 2 eta 3 urteko taldean Gontzal eta Gurutze egiten ari diren lanari esker da.

Egia esan, ezin nuen ikastetxe hoberik aukeratu nire bi seme-alabentzat.



Esther Zugasti

Hainbat arrazorengatik, batez ere gipuzkoarra naizelako, errioxar batekin ezkondua. Horrela, gure gazteek ingurune elebiduna izan dute familian eta ikastetxean, eta horri esker, euskaraz eta gaztelaniaz alfabetatuta egon dira. Ikastolan ikasketak amaitu zituenean, gure alabak euskaraz ikasi zuen unibertsitate-karrera, eta gure semeak gaztelaniaz.

Hartu genuen erabakiarekin pozik geratu gara, ikastolan prestakuntza akademiko ona ez ezik, balioetan ere garapen egokia lortu zuten-eta.



Iñaki Menika eta Mertxe Luna

Elegimos Bastida Ikastola por la cercanía y confianza que nos transmitió y por la convicción de que nuestras hijas siguieran estudiando en euskera .


Bastida Ikastola aukeratu genuen, transmititu zigun hurbiltasun eta konfiantzagatik eta gure alabek euskaraz ikasten jarrai zezaten nahi genuelako.



Monika eta Karmele Petralanda

MP_Nire ikasle garaian ez zegoen ikastolarik Bastidan, hori dela eta ez dut inoiz euskara menperatu ezta euskararekiko harremana estua izan, beraz ez nuen nahi nire semeak egoera berdinean egotea.

KP_Ni txikitatik ikastolara joan nintzen eta etxean betidanik ikusi dut nire aitag egin zuen ahalegina ikastolak aurrera egiten zezan, beraz argi izan dut beti nire alabeentzat aukera onena ikastola zela, giro euskaldunean hazteko.



Luis María Saez de Vicuña

En el año 1979 se inicia el movimiento con la oposición firme de la Escuela Nacional. Los de Diputación, nos ofrecían modelo B minus, que no funcionó con ninguna ikastola y nuestros niños/niñas, no se homologaban con ningún modelo a seguir. La escuela nacional no quiso ni el modelo A. Nosotros no lo quisimos así que, emprendimos la apertura de la nueva Ikastola.

1979an hasi zen mugimendua, Eskola Nazionalaren oposizio irmoarekin. Diputaziokoek B minus eredu eskaintzen zigten, ikastolekin funtzionatu ez zuena, eta gure haurrak ez ziren homologatzen jarraitu beharreko ezein eredurekin. Eskola nazionalak ez zuen A eredu ere nahi izan. Guk ez genuen nahi izan, beraz, Ikastola berria irekitzeari ekin genion.



María José Arinas

Yo ya conocía la ikastola desde que Amaia empezó con el primer curso de infantil, cuando yo estaba en séptimo u octavo de EGB. Yo estaba en la escuela y veíamos a Amaia y lxs niñxs en el patio. Pronto hicimos buenas migas. Después cuando yo tenía 14 años nació mi hermano Kepa y cuando tuvo dos años empezó a ir a la ikas.

A los 23 años tuve a mi hija Carla y cuando tocó escolarizarla, no tuve ninguna duda, era sí o sí ikastola. Yo ya la conocía por mi hermano y lo tenía claro, quería que mis hijxs tuvieran una educación progresista y euskaldun.

Doy las gracias a lxs irakasles de mis hijxs por la educación que les han dado, estoy muy orgullosa de que hablen euskera y conozcan nuestra cultura. Eskerrik asko.

Amaia Haur Hezkuntzako lehen mailarekin hasi zenetik ezagutzen nuen ikastola, ni OHOk zazpigarren edo zortzigarren mailan nengoela. Ni eskolara joaten nintzen eta Amaia eta haurrak ikusten genituen patioan. Laster hasi ginen elkarrekin ondo moldatzen. Gero, nik 14 urte nituela, nire anaia Kepa jaio zen, eta bi urte izan zituenean ikastolara joaten hasi zen.

23 urterekin Carla alaba izan nuen, eta eskolaratu genuenean ez nuen zalantzarik izan, ikastola bai ala bai. Anaiagatik ezagutzen nuen eta argi neukan, seme-alabek hezkuntza aurrerakoia eta euskalduna izatea nahi nuen.

Nire seme-alaben irakasleei eskerrak ematen dizkiet eman dieten hezkuntzagatik, oso harro nago nire seme-alabek euskaraz hitz egiten dutelako eta gure kultura ezagutzen dutelako. Eskerrik asko.



Laura Hernani eta David García

Beti izan dugu oso argi Aimarrek euskara ikastea nahi genuela. Mirandan bizi izanik eta jaio zenetik euskaraz hitz egin diodan arren, bagenekien ez zela nahikoa izango eta hori izan zen Bastida Ikastola aukeratzeko lehen arrazoia.

Ikastolaren aldeko apustua egiteko bigarren arrazoia, beste familia batzuk bere esperientziari buruz esandakoaz gain, bere metodologia zein instalazioak bisitatzea eta ezagutzea izan zen. Gu gure garaian bizi genuenetik haratago beste hezkuntza mota bat dagoela ikusteak zalantzak uxatu zizkigun lehen bisita hartatik.

Gaur egun ere ikusten dugu ikastolak bere irakaskuntza-eredua hobetzeko ahaleginak egiten dituela etengabe eta gauza bera gertatzen da instalazioekin, hala nola haur-hezkuntzako gela edo liburutegia, adibidez. Baina, guretzat, zalantzarik gabe, garrantzitsuena hau da: Aimarrek ikasten duela ikustez gain, egunero Bastida Ikastolara oso pozik joaten dela.



TANTA

**Eskuratu
zure txartela
5€ren truke!**



Gu, Bastida Ikastola



Maria Ruiz Amurrio

Zer da Bastida Ikastola niretzat? Denboran atzera egiten badut, Bastida Ikastola niretzat etxea zela konturatzen naiz, etxe bat non pasioz beteriko irakasle (berezi gogoratzen ditut Ketxu, Beatriz eta Jasone) eta klasekide ezin hobeei esker, egunero irribarre batekin esnatzen nintzen. Gainera, klaseak amaitzerakoan, pareta horien artean ikasitako eta disfrutatutako guztia gurasoekin elkarbanatzeko desiatzen egoten nintzen. Hori zen nire eguneroko zoriontasuna.

Bastida Ikastolari esker euskaraz ikasi izan dut, zehazki Ingeniaritza eta, ondoren Doktoretza egin. Euskaraz lan egiten dut, milio bat aukera profesionaletarako ateak ireki zaizkit, Euskal Herri osoko lagunak dauzkat, eta gaur egun nire etxea dena, etxe euskaldun bat da. Azken finean, euskaraz bizi naiz, horrek suposatzen duen guztiarekin. Ohore bat da Bastida Ikastolaren parte sentitu izana... Eskerrik asko Bastida Ikastola!



Iraide Astorga

"Bastida ikastola" esaten didatenean, hitz bat etortzen zait burura: familia. Bastida ikastola, txikia izanik, beste ikaskide zein irakasleekiko dudak erlazioa oso gertukoa da, denok ezagutzen dugu elkar eta oso erraza da guztion artean harreman sendoak eraikitzea. Gainera, baita ikastolatik joan eta gero ere, irakasleekin harremana mantentzen dut oraindik, eta horrek bereziago egiten du ikastola. Esan dezaket hori dela ikastola honen inguruan gustuko den dudak ezaugarria, gertutasuna eta ikasleekiko zaintza. Horrez gain, nire bizitzaren ibilbidearen hasiera Bastida ikastolan izanda, nire lehen lagunak hemen egin nituen eta nire haurtzaroko eta nerabezaroko hasieraren oroitzapen askok hemen dute jatorri.

Oso esperientzia polit eta dibertigarriak bizi izan ditut gelan, txangoetan... baina batez ere jantokian. Nostalgiaz gogoratzen ditut jantokiko orduak lagunekin. Beste alde batetik, Bastida ikastolak euskararekiko duen inplikazioa oso handia da. Nire kasuan, Errioxan bizi naizen arren, ikastolak euskararekiko duen konpromisoari esker lortu izan dut euskara eta euskal kultura maitatzea eta horri esker orain, euskal musika, euskal jaiak etab. gozatzeko aukera dut. Beraz, Bastida ikastola beti oroitzapen ezin hobeagoekin gogoratzen dut, euskararekiko hainbat ate ireki dizkidan lekua bezala.



Ane Zumalabe Cárcamo

Bi urte nituenean sartu nintzen gelara estreinako, amonaren eskutik: "Hasta luego, hija, dame un besico". Ikastola zaharreko hormek entzun zituzten euskaraz esan nituen lehenengo hitzak. Gogoan ditut ostiral arratsaldeak; patioan, jolasean, eguzkitan igarotzen genituenak. Gogoan dut andereñoaren ahotsa ere, eta koloretako margoak, aulkiak, amantalak... Hazi ginen, heldu gara, eta ikastolako lagunek gaurdaino dirauten bezala, ikasitako kanta eta ipuinak ere ez ditut ahaztu.

Irakasle eta ekintzaileak diren horiei, eskerrik asko hizkuntza eta ezagutza zekiten modurik zintzoenean emateagatik. Gaur, neuk entzuten ditut ikasleek euskaraz esaten dituzten lehen hitzak. Euskaltegiko gela izango da, beharbada, euskararekin betiko lotuko duten lekua, eta horrek zirrara berezia sentiarazten dit. Tira, pentsatzen ari naiz, agian, ostiral honetan kalera irtengo garela, eguzkitan egotera!



Jon Gómez Ibisate

Bastida Ikastola ateak zabaltzen dituen gunea da. Ateak zabaltu hizkuntza bati, kultura bati eta bizitzeko modu bati. Hori gertatu zitzaidan niri, baita nirekin batera egunero Errioxatik Ebro ibaia zeharkatzen genuen guztioi ere. Gune erdaldun batean bizita, euskaraz jolasteko, mintzatzeko, maitatzeko edota haserretzeko aukera Bastida Ikastolak eskaini zigun. Hogei urte geroago, oso harro nago txikitatik ikasitako hizkuntza mantendu izanaz. Gaur, zorionekoa ni, nire irakasleen pausuak jarraituz, eskualdeko txikitxoei gure kulturaren ondarea erakusten ahalegintzen naiz. Nirekin Bastida Ikastolak egin zuen bezalaxe. Hemendik, bihotz-bihotzez, eskerrak eman besterik ezin dut egin. Eskerrik asko irakasle, ikaskide, guraso eta langileei. Eskerrik asko Bastida Ikastola osatu eta osatzen duten guztioi.



Javier Bastida Martínez

Javier Bastida Martínez naiz 35 urte ditut 3 urtekin ezagutu nuen euskera herriko ikastolan. Bastida Ikastolan. Gaur egun oso gustura erabiltzen dut euskara nire gurasoen tabernan bezeroak zerbitzatzen.

Gogoratzen dut ortu bat landatu genuela klasekideekin eta baita San Ginés-en zuhaitzak landatu genituela ere.

Euskalduna naiz eta harro nago, Bastida Ikastolari esker.

Etengabe formazioan

Azken urte hauetan mundua inoiz baino azkarrago aldatzen ari da bai teknologian bai hezkuntza arloan ere. Aldaketa etengabekoa da 1991. urtean World Wide Web (www) proiektua iragarri zutenetik. Izan ere, urte hartan, Internet publikoki erabiltzen hasi ginen. 2010. urtean, iPad kaleratu zuten eta sare sozialak gure bizitzaren alde birtuala eraikitzen hasi ziren. Aldi berean, Alpha belaunaldia jaio zen, dagoeneko Beta belaunaldiak ordezkatu duena. Hamabi urte geroago, 2022ko udazkenean, ChatGPT-k mundua hankaz gora jarri zuen, Adimen Artifiziala baino gehiago baitzen: testuak sortzeko gaitasuna zeukan. Adimen Artifiziala publikoki erabiltzen hasi zen hainbat arlotan, ia edozein gauza egiteko. Gizartearen erroka berriei erantzuteko moldatu behar izan da. Hori dela eta, hezkuntzan ere aldaketa sakonak egin beharrean gara gizarteak eskatzen dizkigun beharrei aurre egiten prestatzeko. Gizarteak gaitasun berri batzuk eskatzen dizkigu eta hauek ikasi eta irakatsi behar dira, zalantzarik gabe.



Leticia Acosta

Hori dela eta, Bastida Ikastolako irakasleek gizartearen eskakizun berriei erantzuteko prest egon nahi dutela argi daukate eta aurrera tinko egiten ari dira. 2023ko irailean, Bastida Ikastolako irakasleak formakuntza teknopedagogiko berri bat hasi zuten. Une hartan, gu Leire Junguitu eta Leticia Acosta, UNED-eko SMEMIU ikerketa taldean laguntzen ari ginen eta Bastida Ikastolak eskatu zigun formakuntza guztiz aproposa iruditu zitzaigun. Alde batetik, haien nahiek gaur egungo gizarte postdigitalarekin bat egiten zutelako, geletara eramateko asmoz gaitasun digitalean sakondu nahi zuten eta beste alde batetik, azken urteetako berrikuntza pedagogikoak praktikan jarri nahi zituztelako. Horretarako, joan den ikasturtean eta baita honetan ere, Bastida Ikastolako irakasleak gaitasun digitalaren inguruan ikuspegi pedagogiko eta hezkuntza-komunikatibotik zuzenduta etengabeko prestakuntza jasotzen ari dira.



Leire Junguitu

Bide honetan, teknopedagogiarekin lotutako hainbat gai jorratzen ditugu, Bastida Ikastolako geletan Diseinu Unibertsala Ikaskuntzaren lotuta dauden hainbat praktika eta ekintza gamifikatuta, hain zuzen ere. Errealitate Areagotua eta Errealitate Birtualaren aukerak, besteak beste, metabertsio hezitzaileak prestatu dituzte, irakaskuntza esperientzialagoa eta dinamikoagoa bihurtzeko asmoarekin. Halaber, Lehen Hezkuntzan ez ezik Haur Hezkuntzan ere pentsamendu konputazionalen ere hainbat pausu ematen ari dira, izan ere, hezkuntza lehen adinetatik hasita etengabeko ikasteko prozesua da.

Prestakuntza honetako edukien artean Adimen Artifiziala egon behar da, nahi eta nahi ez. Hezkuntzak ezin dio bizkarra eman Adimen Artifizialari eta horrela, Bastida Ikastolako irakasleek UNESCOko erabilera batzuk lantzen dituzte. Adimen Artifizial Sortzaileak erabiliz material didaktiko batzuk diseinatu dituzte, Machine Learning 4 Kids (ML4Kids) eta Scratch tresnen bidez, iaz LH6-ko ikasleek ingurumen-hezkuntzako proiektu baterako jarduera bat diseinatu zuten eta Adimen Artifiziala oinarritutako tresna desberdin batzuk Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako geletan praktikan jarri dituzte, adibidez, mezu konkretu batekin ipuin txikiak sortu edo chatbot berezi batzuekin erabiliz gai ezberdinak landu.

Bastida Ikastolako irakasleek etengabeko formakuntza ezinbestekoa dela badakite, bizi garen gizartearen ikasleak herritar parte-hartzaileak, elkarerreragileak eta kritikoak prestatzeko, XXI. mendeko gizartearen errokei aurre egiteko. Irakasleok tresna eta estrategia berriak ezagutu behar ditugu ikasleei bide berri horietan laguntzeko. Beraz, etengabe prestatzen jarraitzea da irakaskuntzaren kalitatea bermatzeko bidea, eta, zalantzarik gabe, Bastida Ikastolako irakasleak bide ezin hobean daude.

Ihes- gela



Azken urte honetan, TEKNEAko lagunen eskutik jaso dugun formazio digitala helburu zehatz baten inguruan landu dugu: Araba Euskaraz. Hain zuzen ere, ikasturte honetan sei erronka osatu ditugu gure ikasgeletan. HHko txikienetatik hasita LHko nagusienetara Escape Room edo Ihes-gela baten sorkuntzan parte hartu dute.

Hasteko, gure geletan, erronka interaktiboen bidez adimen artifizialarekin aritu gara, esate baterako, jolas digitalak sortu ditugu, pentsamendu konputazionala eskuekin ikutu dugu edo podcastak grabatu ditugu. Dibertigarria izateaz gain, sormena, hezkuntza-teknologia, euskara eta Ikastolak uztartu nahi izan ditugu proiektu honekin, ikaskuntza aktibo, ko-sortzaile, ludiko eta motibagarria sustatzen, ikasleak protagonistak izanik.



Esperientzia polit eta abesgarria izan delakoan gaude eta Euskal Herriko ikastola guztietara zabaldu nahi izan dugu ondoren. Horrela, Ihes-gela edo Scape room formatua emanez, maiatza eta ekainean zehar jolas dezaten artefaktua sortu dugu. Gure hizkuntzaz, herriaz, ikastolez, ... eta nola ez mundu digitalaren erronkez hausnartzeko eta ikasteko aukera proposatu diegu, gainera, elkarrekin jolasean ikasteko. Agian ikasturte gogor hau amaitzeko modurik onena izango da.

* Irudi honetan, Bastida Ikastolako haurrek sortutako araba euskarazeko logoak daude. Kolore eta estilo irizpide gutxi batzuk eman ondoren, bakoitzak nahi izan dituen baliabide digitalak erabiliz.

* QR honen bidez, Metabertsoan sartu ahalko zara, bertan, sei erronketan txikienetatik zaharrenetara sortutako artefaktuak kuskuxeatu ahalko dituzu, museo batean izango bazina bezala.



≡PATATAK ZURE PLATERREAN PREST≡



udapa
≡FÁCIL≡

Ezagutu **Udapa Fácil** gama osoa gure webgunean eta sare sozialetan:

www.udapa.com



BATERA GARA

Kooperatiben eredia sendotzeko lanean ari gara, Araban enpresa- eta gizarte-garapenerako erreferentzia izan dadin.

LABORAL
kutxa

rpk

GOROS
a.k.a.
construyendo
soluciones

aurrenak

udapa

KONFEKOOP

Loramendi